



AKTA

Udalbatzarraren ezohiko bilkura

EGUNA: 2007ko martxoaren 7a, asteazkena.

LEKUA: Udaletxeko Udalbatzarraren aretoa.

HASIERA-ORDUA: 19:08 **AMAIERA-ORDUA:** 19:13

BERTARATUAK:

Alkatea

Ramon Etxeberria Aldaz

Zinegotziak

Eneko Olariaga Arruti, Noemi Ostolaza Arkauz, Martxiel Genoba Solabarrieta, Asier Yeregi Campos, Eugenio Cotado Iturain, Maria Elena Legarra Alfaro, Aurora Azkue Mujika eta Jesus Jose Rodriguez Pousa.

Idazkari-Kontuhartzailea

Jon Carrera Jauregi

BERTARATU EZ DIRENAK: M. Jose San Sebastian Aranburu eta Ainhoa Leunda San Sebastian ez dira bilkuran izan, arrazoi ezberdinengatik.



Puntu Bakarra

1. Esleitzea, egoki bada, “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – I. Fasea –” obren kontratazioa.

Esan-eginak

1.- ESLEITZEA, EGOKI BADA, “ORIOKO BARIKO SAN NIKOLAS ELIZAREN INGURUNEA URBANIZATZEKO – I. FASEA –” OBREN KONTRATAZIOA.

Jarraian Udalbatzarrak 2007ko otsailaren 15ean Gipuzkoako Aldizkari Ofizialaren 33. zenbakian argitaratu zen tramitazioaren berri du. Tramitazio horretan “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – 1. fasea –” obren exekuzioaren kontratazioa argitaratzen da, Egitasmo Teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez.

Izanik zabaldu zen epearen barruan ondorengo lizitatzailleak aurkeztu zirela:

- GUIPUZCOANA DE RESTAURACIONES, S.A.

Ikusita kontratazio mahaiak “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – 1. fasea –” obren exekuzioaren kontratazioa, Egitasmo Teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez, “GUIPUZCOANA DE RESTAURACIONES, S.A.” enpresari adjudikatzea proposatzen duela, Baldintza Ekonomiko-Administratiboen Pleguaren 9. artikulua ezartzen dituen zehaztapenen eta Udal Zerbitzu Teknikoen igorritako txostenaren arabera.

Udal honetako Udalbatza jakinaren gainean geratzen da eta kontratazio mahaiaren proposamenez, gaia eztabaidatu ondoren, HONAKO HAU ERABAKITZEN DU, AHO BATEZ, legezko kopuruaren gehiengo absolutuarekin [9 baiezko boto]:



LEHENENGO.- Baliotzat **EMATEA** 2007ko martxoaren 5ean izan den pleguen irekiera.

BIGARREN.- BEHIN BETIKO ADJUDIKATZEA “Orioko Bariko San Nikolas Elizaren ingurunea urbanizatzeko – 1. fasea –” obren exekuzioaren kontratazioa, Egitasmo Teknikoaren arabera, prozedura irekiz, ohiko tramitazioz eta lehiaketa bidez, “GUIPUZCOANA DE RESTAURACIONES, S.A.” enpresari, obren adjudikazioaren prezioa **LAUREHUN ETA HIRUROGEITA HAMALAU MILA ZORTZIREHUN euro eta HAMABOST zentimo (474.800,15 €)** izanik –Gastu orokorrak, industria onura eta B.E.Z. barne–.

HIRUGARREN.- Ebazpen hau **JAKINARAZTEA** interesdun guztiei, jakinaren gainean egon daitezen eta dagozkin ondorioetarako, egoki irizten dizkioten errekurtsio legalak aipatuz.

Horrenbestez, Alkate-Lehendakariak bilkurari amaiera emateko agintzen du, gaurko arratsaldeko zazpiak eta hamahiru minutu izanik, eta erabakitako guztia jasota gera dadin, nik, Idazkaria naizenez, akta hau egiten dut Alkatearen **ONTZAT EMANAREKIN**.

ALKATEA

IDAZKARIA